

Hazkunde nabarmena Gipuzkoara mugatzen da, eta Ipar Euskal Herrian etengabea da jaitsiera

Bizkaiko datua kaskarragoa izan da, eta Nafarroan emaitza bera errepikatu da urteotan, espero ez bezala

A. SARASOLA
Donostia

Aurreko urteetako neurketek herrialdeka utzitako datuen joerak aztertuta, ikerlarien aurreikuspenen barruan daude 2006ko azterketak Gipuzkoari eta Ipar Euskal Herriari dagokienez emandakoak. Gauza bertsua gertatu da Araban, emaitzek aurreikuspena apur bat hobetu duten arren. Hipotesietan aurreikusitako joeretatik kanpo, berriz, Nafarroan 2001eko datua errepikatu izana eta Bizkaian orduko emaitzak baino kaskarragoak jaso izana daude. Hainbat adituk datuen interpretazioa egin dute Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako Bat aldizkarian.

Gipuzkoa

Neurketaren arabera, Gipuzkoan kalean izaniko hiru elkarrizketatik bat euskaraz izan zen. Gainera, herrialdeetan baino handiagoa da euskararen kale-erabilera Gi-



Haurrak Arabako ikastola batean, marrazkiak egiten. RAUL BOCAJO / ARGAZKI PRESS

puzkoan –Euskal Herri osoko batez bestekoaren gainetik–, eta baita hazkunde ere. Jose Felix Diaz de Tuestak ateratako ondorio nagusien artean dago, kalean euskaraz gehien egiten dutenak haurrak direla (elkarrizketen erdiak). Bilakaerarik baikorra, berriz, gazteek izan dute, erabilera maila haurrena baino txikiagoa izan arren. Helduen erabilerak, oraindik apala bada ere, joera baikorra izan du. Adituaren arabera, zenbat eta euskaldunagoa izan bere eremua, or-

duan eta handiagoa izango da erabilera ere. Hala, Gipuzkoako gunerik euskaldunenetan, euskaldunek gehienbat euskaraz hitz egiten dute. Euskaldunen dentsitate indizeak behera egitearekin batera egiten du behera erabilerak ere.

Bizkaia

Azken urteetako igoera motelaren ondotik, datu kaskarragoa eman du oraingo neurketak herrialdean. Ezagutza mailan Bizkaiko euskaldunen kopurua gora badao ere, ka-

leko erabilera %0,6 gutxitu da. Patxi Juaristik Eustateko datuak aipatuz bere azterketan dioenez, bizkaitarren %14,88 euskaldunak ziren 1981ean, eta %24,96 ziren 20 urte geroago. Ordea, euskaraz hitz egiteko gero eta gaitasun handiagoa badago ere, erabilerak ez du aurrera egin. Alegia, euskaldun gehienek erdaraz hitz egiten jarraitzen dutela. Datuei erreparatuta, Bizkaian erdaraz hitz egiten duten euskaldunak gehiago dira, euskaraz hitz egiten dutenak baino. Bilbon %0,3 jaitsi da erabilera 2001etik hona.

Araba

Gorantz egin du Araban euskararen kale-erabilerak, 2001ean aurreko urteetako joera hautsi eta behera egin zuen moduan. Herrialdean erabilera datuek utzitako gorabehera «nahaspilatsuak» aipatu ditu Iñaki Martinez de Lunak bere azterketan, eta joerari erreparatu behar zaiola nabarmendu. Hala, 17 urteotan %3,9tik %4,7raigo da erabilera Araban, %20,5 alegia. Hiri-buruan, berriz, bikoiztu egin dela esan liteke. «Hitz potoloak, baina errealitate apala», Martinez de Lunaren esanetan. Izan ere, 1989an %2koa zen erabilera Gasteizen, eta 17 urtera halako bi da, %4. Hala, go-

rantz bai, baina poliki ari da hazten euskararen erabilera Araban.

Nafarroa

Nafarroan 2006ko neurketak euskararen aurrerabiderik eza berretsi du. 2001eko datu bera eman dute 2006. urteko neurketek: elkarrizketen %6,6 egiten dira euskaraz Nafarroan. Azken 17 urteetako joerari erreparatuta ere, ez aurrera eta ez atzera dago euskararen erabilera herrialdean –%6,5ekoa zen orain dela 17 urte—. Egonkortasuna baino, iraupena ikusi du Paula Kasaresek datuotan, hots, «Nafarroako euskal hizkuntza komunitateak bere erabilera tasari eutsi egin diola». Beste herrialdeetan ez bezalako atzerritar kopuruak (45.000 inguru) eta Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikak ez dutela erabilera behera ekarri nabarmendu du. Beste adin taldeen galeren aurrean, igoerarik handiena gazteen artean izan dela ere azpimarratu du, besteak beste.

Ipar Euskal Herria

Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako kaleetan euskararen erabilera behera doa, etenik gabe. Neurketatik neurketara sumatzen da beherakada, baina kezkatzekoa da urtetik urtera honen erritmoa bizkortzea, Jean Baptiste Coyosek nabarmendu duenez. Haurren erabilera mailan jaitsiera txikia gertatu da 2001etik hona, baina hazi egin da gazteen artean. Heldu eta adinekoen datuak are okerragoak dira.

Opel Antara
Berria
Opelaren SUV berria

**Orain, matrikulatze zerga, opari,
3.000€ arteko aurrezkia***

Opel Antara berriaz ohalrik eta gehien gozo dezazun nahi dugu. Horregatik, matrikulatze zerga oparitutako dizugu, 3.000€ euro merkeago erosi ahal izateko. Eta noraino iritsi zaitzakeen Opel Antara berriarekin. Serieko ekipamendu ikusgarria gama osoan: trakzio sistema adimenduna, OCS jaitsieretarako kontrola, HBA balaztatzeako laguntza hidraulikoa, ABSa eta abar.

GMAC

www.opelantara.es

Giauto

ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA · ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 Salmentak · Tel. 902 345 125 Tailerra · e-mail: clientes@giauto.es

www.giauto.es